

PP: «Gobernua salatzenko ETak darabilen estrategia berbera darabil EAJk ere»

Carmelo Barriok dioenez, jeltzaleak dira PP alderdia «jazartzen» dutenak


ETaren estrategia berbera erabiltzea leporatu zion EAJri atzo Carmelo Barriok, «gauza guztiengatik Gobernua eta PP salatzen duelako». EAJko bozeramaile Iñigo Urkulluk egindako adierazpenei erantzunez, jeltzaleak eurak direla PP alderdia «jazartzen» dutenak esan zuen EAeko PPko idazkari nagusiak eta, horrekin guztia-ekin, hautesleen aurrean «biktima» gisa aurkeztu nahi dutela euren burua.

Europa Press / Bilbo

BIZKAIKO EAJren bozeramaileak, Iñigo Urkulluk, Espainiako Gobernuak ezker abertzalearen aurka hasitako «strategia suntsitzaila» salatu zuen herenegun; gainera, epe luzera estrategia hori euskal abertzaletasun guztiaren aurkako «jazartzen» bilaka daitekeela nabarmendu zuen, eta ez zuen baztertu «jazartzen» EAJraino iristea ere.

Adierazpen horiei erantzunez mintzatu zen atzo Carmelo Barrio, EAeko PPko idazkari nagusia. Barriok ETaren estrategia berbera erabiltzea egotzi zion EAJri adierazpen horiek egiteagatik, «Gobernua eta PP salatzen dutelako gauza guztiengatik». Halaber, azpimarratu zuen alderdi jeltzaleak «jazartzen» duela PP alderdia, eta ez alderantziz.

EAJren estrategia HBri keinuak egin eta harekin harremanetan jartzean datzala argitu



Carmelo Barrio, EAeko PP alderdiko idazkari nagusia.

JOSEBA OLALDE

zuen Carmelo Barriok, eta «nazionalismoaren aurkako mamuak» sortzea dela euren helburua. PP alderdiak, hala ere, «Zuzenbide Estatuaren tresnekin, Zuzenbide Estatua suntsitu nahi dutenen aurka» borroka egiten duela azpimarratu zuen, eta horri ezin zaio la deitu «epe laburreko estrategia suntsitzaila» erabiltzea. Gobernuak legean eta Justizian oinarritutako estrategiak darabiltzala gaineratu zuen Barriok.

Barrioren iritziz, EAJ hauteskondeen aurrean «urduri» dagoelako eta «histeria eta paranoia» duelako egin ditu Urkulluk horrelako adierazpenak. Hori

dela eta, euren burua «biktima» gisa aurkezteaz salatu zuen Barriok EAJ, eta zera azpimarratu zuen: «Triste da boterean dagoen alderdi batek horrelakoak jarrera politiko gisa erabiltzea. Jaurlaritzan dagoen baina Gobernu zentralak presionatu eta zapaltzen omen duenaren estrategia bezala erabiltzea».

IUK EAJren «kontraesanak» salatu ditu • IU-EB alderdiak Kongresuan daukan diputatuak, Jose Navasek, EAJren «inkoherentzia eta kontraesanak» salatu zituen, «orain PP kritikatzan baitu, baina, aldi berean, bere

laguntza eskaintzen dio, Madri- len Gobernuan jarrai dezan».

Hori guztia dela eta, gutxiago hitz egin eta «behingoz» PPri laguntza ukatzeko eskatu zion Navasek EAJri. «Era horretan, Aznarrek ez du betiko boterean iraungo bere politika atzerakoia-ekin», esan zuen Navasek.

UAKO idazkari nagusiak, Pablo Mosquerak, berriz, esan zuen EAJk garrantzi handiagoa ematen diola «ENAMen izpiritua bizi-rik gordetzeari, Euskal Herriko biztanleen interesak defendatzeari baino». Hori dela eta, harrigarritzat jo zuen Mosquerak jeltzaleek «ENAM garaitua izateari dioten beldurra».

«Urkulluk ez du kontuan hartzen Euskal Herrian bizi garen espainiar askok pairatzen dugula, ENAMen eta ETaren jazarpena ez ezik, 'gurekin edo gure aurka' dioen EAJren politikarena ere», esan zuen Mosquerak.

Ildo horretatik, Urkulluren adina kontuan hartuta Juan Jose Ibarretxeren «tolerantziaren» izpiritutik hurbilago zegoelako ustea zuela esan zuen Mosquerak, «baina jeltzale gogorren ondorengoa da». X

HBko beste kideei ere langabezia kobratzea ukatuko zaiela dio INEMen arduradunak


«Legearen arabera aztertuko dugu kasu bakoitza», esan du Manuel Pimentelek

Europa Press / Madril

LANGABEZIA kobratzeko esperean dagoen HBko Mahai Nazionalako beste zenbait kidek egin duten eskaera «ukatu» egingo zaiela esan zuen atzo Manuel Pimentelek, Enplegurako Estatu idazkariak, «baldin kasu horiek Mikel Arregiren ezaugarri berberak badituzte».

Hori dela eta, INEMek kasu bakoitza «legearen arabera» aztertuko duela gaineratu zuen Pimentelek, eta erakunde horren baitan ez dagoela «inolako politizaziorik» nabarmendu. «Arregiren kasuan lan harremanik ez dagoela pentsatzen dugu, erakunde horren arduradunetako bat delako. Gainontzeko eskaeretan ere horrelakorik gertatzen bada, ukatu egingen diegu langabezia kobratzea», esan zuen Pimentelek.

Estatu idazkariak herenegun



Manuel Pimentel.

GUSTAVO CUEVAS / EFE

argitu zuenez, INEMek ez dio Donostiako Epaitegiaren epaiari jarraiki Arregiri langabeziarik ordaindu, «ez duelako erantzuki-

zun familiarrik ote duen justifikatu eta espetxean dagoelako».

INEMek Donostiako Epaitegiaren erabakiaren aurkako errekurtsioa aurkeztu du jada, eta atzo bertan igorri zizkion Estatu-ko fiskal nagusiari Arregirik egindako eskaerari buruzko dilijentzia guztiak, handik eskaera Auzitegi Gorenera bidera dezaten.

Arabako PSE-EEko idazkari nagusiak, Fernando Buesak, esan zuen «gehiegizkoa» dela Mikel Arregiren langabezia kobratzeko eskaera hori. «Eskandaluzkoa» iruditu zitzaion Garbiñe Biurrun epaileak Arregiren alde hartutako erabakia, eta INEMek jarritako errekurtsioak «gauzak bere lekuan jartzea» espero duela gaineratu zuen.

Niko idazkari nagusi Diego Lopez Garridok legeari egindako «iruzurtzat» jo zuen Arregiren aldeko epaia. X

PPk Salbeko desfileari berrekin diezaiola eskatu dio Donostiako alkateari

Agintarien segizioa ez dela egingo berretsi du Odon Elorzak

Agentziak / Donostia

DONOSTIAKO Udaleko PPko zinegotzi taldeak gutun bat bidali zion atzo Odon Elorza Donostiako alkateari, abuztuaren 14an Salbeko desfileari berrekiteko aukera kontuan hartzeko eskatuz. Gutuna Maria Jose Usandizaga alderdi popularreko bozeramaileak sinatu zuen; haren ustez, «orain bi urte arte donostiarren eta bisitarien artean oso erroturik zegoen ohitura berritzea unea da». Gutunaren amaieran segizioa normaltasunez irteteko eskaria egiten diote Donostiako alkateari. «Uste dugu donostiarren borondatea dela ekitalde ospetsu horri uko ez egitea, eta, horregatik, aipatu segizioari normaltasunez berrekiteko aukera aintzat hartzeko eskatzen dizugu». Atzo bidalitako gutuna Usandizagak berak herenegun egindako eskariaren formalizazioa besterik ez da izan.

Bestalde, Donostiako alkate Odon Elorzak atzo baieztatu zuenez, abuztuaren 14ko Salbea, autoritateen desfilea, ez da egingo, nahiz eta PP alderdiak eskaria egin. Hala-ber, gaia ez dela berriro eztabaidatuko ziurtatu zuen Elorzak, eta azken hiru urteotan bezala ez dela egingo berretsi zuen, istilurik izan ez dadin. «Ez dago eztabaidarako ziorik, ezta liskarretarako ere. Gauzak orain urtebete bezala daude, eta baita orain bi eta hiru urte bezala ere. Guztia esana dago», adierazi zuen Odon Elorzak, Donostiako alkateak.

EAJko bozeramaile Martin Elizasuk azaldu zuenez, PSE-EE, EAJ eta EA alderdiek adierazpenik ez egitea eta segizioa ez antolatzea erabaki zuten astelehenean egin zuten bileran. HBk, berriz, pozez hartu zuen desfilea ez egiteko erabakia. X

Bermeoko Udala

IRAGARKIA

1998ko uztailaren 20an izandako Gobernu Batzordeak, ETXARRO SAN RENO, SLK aurkeztutako "19.2" exekuzio unitatearen Xehetasun Estudioari hasierako onespina erabaki dauanez gero, 15 eguneko epearen barruan egokiak lirakeen alegazioak egin ahal izateko, jendaurrean jartzen dot.

Alegazioak ez balitz, hori behin betiko onartua geldituko da.

Bermeon, 1998ko abuztuaren 5ean.

ALKATEA.

Bermeoko Udala

IRAGARKIA

1998ko uztailaren 20an izandako Gobernu Batzordeak, ETXARRO SAN RENO, SLK aurkeztutako "19.2" Exekuzio Unitatearen Urbanizazio Proiektuari hasierako onespina erabaki dauanez gero, jendaurrean jartzen da 15 eguneko epean, egoki diran alegazioak egin ahal izateko.

Bermeon, 1998ko abuztuaren 5ean.

ALKATEA.